



ELIKAGAIAK EKOIZTEKO LANDA-LURRA: EZAUGARRIAK ETA GAITASUNA

EREDU ESTANDAR BATEN BILA


LARRABETZU UDALERRIA

2018ko URRIA



Egileak:

Babesleak:



0. AURKIBIDEA

1. SAR HITZA.....	5
2. LURRA ETA ELIKADURA.....	7
3. LABURPEN EXEKUTIBOA.....	9
4. ELIKAGAIEN ESKARIA.....	13
4.1. HERRITAR EGOILIARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO BEHARRA.....	15
4.2. HERRITAR EGOILARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO BOLUMENA.....	17
4.3. HERRITAR EGOILARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO GASTUA.....	21
5. LEHEN SEKTOREAREN DIAGNOSTIKOA.....	25
5.1. LEHEN SEKTOREAREN NEGOZIO-ZIFRA.....	27
5.2. LEHEN SEKTOREKO ENPLEGU SORRERA.....	28
5.3. LEHEN SEKTOREKO EHUN EKONOMIKOA.....	29
6. LURRAREN DIAGNOSTIKOA.....	33
6.1. LURRAREN EGITURA OROKORRA ETA ORGANIKOA.....	35
6.2. LURRAREN EGITURA ETA LANDA LURRAREN ERABILERA.....	39
6.3. BASOAREN EGITURA.....	41
6.4. LANDA LURRAREN EZAUGARRI NAGUSIAK.....	43
6.4.1. ERREPIDEEN GERTUTASUNA.....	43
6.4.2. ITURBURUEN GERTUTASUNA.....	43
6.4.3. LURRAREN ORIENTAZIOA.....	45
6.4.4. LURRAREN MALDA.....	45



7. ELIKAGAIEN EKOIZPENERAKO LURRAREN DIAGNOSTIKOA.....	47
7.1. BARATZEGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA.....	49
7.2. FRUTAGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA.....	51
7.3. ABELTZAINZARAKO LURREN EGOKITASUNA.....	53
7.4. BASOLARREGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA.....	54
8. HORNIKUNTZARAKO GAITASUNA ETA LURRAREN POTENZIALITATEA.....	57
8.1. HERRITARREN ELIKADURARAKO LURRAREN ERABILERA ETA BALIZKO AHALMENA	59
8.2. ELIKAGAIEN AUTOHORNIKUNTZA BEHARRA ETA AUKERA.....	61
8.3. LAN UNITATEAK ELIKAGAIEN AUTOHORNIKUNTZAN.....	64



1. SAR HITZA

Udalerrri baten etorkizuna irudikatzen denean Hiri Antolaketako Plan Orokorra (HAPO) aintzat hartzen du udalerrriari espero zaion bilakaera, izan bilakaera naturala edo joera indartsuagoen eragina.

Gauzak horrela arrazoizko epe baten barruan gauzatuko den plan orokorra zehazten du, zeinak zehazten duen zein jarduera egin behar diren bizileku mailan, jarduera ekonomikoari eskainitako eremuari dagokionez edo sistema orokorreari dagokionez.

Inguru naturala babes handikoa izan arren, “ez urbanizagarri” izan ohi da kalifikazio nagusia eta katalogatutako biotopo eta elementu berezietan harago, ez du ezartzen zer izan behar duen etorkizunean.

Azken bi hamarkadetako bilakaerari so, ordea, eremu “ez urbanizagarria” kategoria malgua dela ikusi dugu, hazkunde urbanistikoak behar duenean bere egiten duen eremua.

Horrela, hedapen urbanistikoak beretzat hartu ditu udalerrrien inguruko eremu zabalak. Baliteke horiek guztiak beharrezkoak izatea, baliteke beste alternatiba batzuetarako aukera egotea, baina azpimarratzekoa da eztabaida horretan falta izan dela aldagai nagusi bat: zein lur gorde eta babestu behar dira, orain edo etorkizunean elikagaiak ekoizteko? Galdera horri erantzun gabe, galdera bera mahai gainean jarri gabe hartu dira hainbat erabaki, gehiengoz.

Landa lurra, ordea, mugatua da, are mugatuagoa baratzegintzarako eta goldatzeko lurra. Zentzu horretan, HAPOren moduko eragiketa batek biotopo eta gainerako natura berezitasunak betikotzeko ahalegina egiten duen moduan, landa-lurra betikotzeko ahalegina egin beharko luke, galerak ahalik eta gehien murriztuz eta dagoeneko eraikita dagoena berrerabiliz.

Esku artean duzunak ariketa horretan lagundu nahi luke. Txosten honen izaera esperimental da eta zuon guztion laguntzarekin hobetuz, Euskal Herriko HAPO nahiz lurraldea antolatzeko bestelako edozein eragiketa egitean lagungarri izan nahiko lukeen eredu bat eskaini nahi genuke.

Txosten honek udalerriko dimentsio sozioekonomiko nagusiak (eskaria eta sektorearen desmarta) eta lurraren ezaugarriak (berez dituen ezaugarriak eta gaur egun ematen zaion erabilera) biltzen ditu. Horren bitartez, HAPOaren prozesuan parte hartzen duen herritarrak bere esku izango ditu elikagaien kontsumo eta ekoizpenari lotutako balio nagusiak.

Esandakoak agerian jartzen du gure hirigintzaren gabezia handi bat: lurrari eta elikagaien ekoizpenari eskaintzen zaion arreta eskasa. Hori bera, ordea, erronka ilusionagarri bat bihurtu zaigu bizi garen garai honetan, udalerrri eta eskualdeak gai izango ote dira bere landa lurra ongi kudeatuz bere biztanleak hornitzeko? Ukaezina da elikagai osasuntsuen premiaz gain, zirkuitu laburrek, landa lurraren kudeaketak, elikagaien transformazioak, enplegu sorrerak... lehen mailako ondasuna dakartela horren alde egiten duten udalerrri eta eskualdeetan.

Balio beza lan honek eztabaida horretan herritarrak informatzeko eta planeamendu mailako erabakietan argibideak eskaintzeko. Edonola ere, esperientzia pilotua izanda, zuon guztion ekarpen beharrean dago.



2. LURRA ETA ELIKADURA

Esku artean duzuna ahalegin esperimental jakin baten emaitza da. Gaindegia eta Bizkaiko EHNEren artean Errigoiti, Elorrio, Karrantza eta Larrabetzuko udalerrien azterketa egin dugu.

Galdera nagusi bati erantzun nahi izan diogu: Zein da udalerrri bakoitzaren gaitasuna elikagaiak sortzeari dagokionez? Galdera horren erantzuna, ordea, norabide jakin batean marraztu nahi izan dugu: Udalerriaren egitasmo estrategikoetan lurrak komunitatearen zein pertsonen ongizaterako duen balioa azaleratzea.

Gure kezkak oinarri sendoa du. Hamarkada luzeak bizi izan ditugu zeinetan baserritarren lanaren fruitua gutxietsi egin dugu, gure hozkailuak urruneko jakiz bete diren eta lur eremu zabala artifizializatu den etxebizitzak zein azpiegitura berriak eraikitzeke. Horrek, halaber, ondorio nabarmenak izan ditu: baserritar gutxiago, baserriak galdu, bertako elikagaien kontsumoa amildu, landa lurren zaintza narrastu... Gure herriaren kulturak asko du lurretik (espazio kuttunak, kultur eta kirol jarduerak, elikagai paregabeak...) baina azken 50 urtetako ibilbideak eten egin du lotura hori. Lurrik eta baserritarrik gabeko Herria izateko bidea hartu dugu.

XXI. mendeak, ordea, argi gorriak piztu dizkigu, iraunkortasuna beharrezkoa zaigu gure Munduak iraun dezan, nekazaritza iraunkorra ere bai. Errebisatu beharrean gaude, beraz, gure uste eta egiteko erak. Baserritarrok alde horretatik badugu zer eskaini eta zer aldarrikatu euskal gizartea parametro berrietan jokatzen has dadin. Landa lurraren kontserbazioari eta honek elikagaiak ekoizteko duen balioari izaera estrategikoa aitortu behar diogu bailaraz bailara, ondasun ahigarria denez.

Badakigu, ordea, elikatzea fenomeno zabala dela, askotariko eragile eta prozesuak dituela bere baitan. Zinez, elikatzeko moduak lurraldea fisikoki eta sozioekonomikoki egituratzen du (norabide batean edo bestean, hautatzen den ereduaren arabera). Badakigu, halaber, bide horretan baserritarrak eta herritarrok topo egin beharko dugula, bai ekoizpenean, bai kontsumoan, baina baita herri eta eskualdetako planifikazio estrategikoan ere, hori izango da elikaduratik lurraldea iraunkortasunez baldintzatzeko bidea. Besteak beste, hirigintza planeamenduetan. Garatu dugun metodologiak bide horretan herritarrak jabetu eta landa lurraren ezagumendua garatzen laguntzea nahi genuke.

Asmo horrekin garatu dugu egitasmo hau. Honaino helduta, ordea, ziur gaude etorkizunean baserritar eta adituen laguntzarekin eredu osatu eta sendotzeko bide emankorra egingo dugula. Esku artean duzun honek lanerako proposamena izan nahi luke.







Laburpen exekutiboa

Atal honetan txostenaren laburpena topatuko duzu. Bertan, azterketaren datu esanguratsuenak azaltzeaz gain, azterlanaren sintesia topatuko duzu.

Larrabetzuko herrian arreta jarriaz, azterlan honek ondorio ugari utzi dizkigu (xehetasunak ezagutzeko jo txostenera), zeinak elikadura estrategia iraunkor baten diseinuan baliagarrian izatea espero den. Laburrean, esan daiteke, Larrabetzuk elikagaiak ekoitzi eta autohornikuntza maila handitzeko beharra eta aukera zabalak dituela:

1. Egun elikadurak Larrabetzun eragiten duen mugimendu ekonomikoa aintzat hartuz, bertako autohornikuntzaren dimentsioa apala da (BPGren %2,6, enpleguaren %1,8, eta ehun ekonomikoaren %10,9). Beraz, autohornikuntza maila hobetzeko eremu zabala du aurrean. Esaterako, baratze-gintzarako egokiak diren lurren %98a ez da helburu horretarako baliatzen eta frutagintzarako egokia den eremuaren %90a ere ez. Larreen kasuan 2/3 ez dira baliatzen.
2. Autohornikuntza maila handitzea helburu lorgarria da, Larrabetzuk duen landa-lur ondarea aintzat hartuz gero (2.241 hektarea "urbanizaezin" izendatuta daude, udalerrien %95a). Hala ere, ezin uka eremu honek bizi duen artifizializazio eta kutsadura arriskua. Azken bi hamarkadetan industria eta ekipamenduetarako gainazala boskoiztu egin da, lur emankor ugari betiko galduz eta hainbat lur eremu kutsadura iturrietatik hurbil daude.
3. Basoek azalera handia hartzen badute ere (1.379 hektarea), gehiena Radiata pinuaren landaketak dira (661,2 ha.) eta Baso azaleraren %17a baso naturala da (295 ha). Pinuaren eragina eta bizi duen gaitza kontuan hartuz, aukera egokiak daude, beste landaketa batzuetara jotzeko (bertako espezieak) eta nahi izatera "basolarregintzara" bideratzeko, hots, zura eta abeltzaintza uztartzeko.
4. Funtzionaltasun maila handiko landa lurra du Larrabetzuk, besteak beste, bide berriak zabaltzen ibili beharrik izan gabe erabilgarri baititu partzela gehienak. Iturburuen eskuragarritasuna ez da horren eroso, baina hala ere, aipatzekoa da iturburu bat hurbil duten partzelen kopurua (%46). Lurren orientazioaz nabardura handiagoak egin behar dira, izan ere, lurren erdiak hegoaldeko orientazioa badu ere, azaleraren 3/4ak %12tik gorako malda du. Beraz, funtzionaltasun mailarik handieneko partzelak katalogatu eta babesteko lan garrantzitsua du Larrabetzuk, baldin eta establezimendu berriak ezartzea nahi badu.
5. Baratze-gintzarako lurren egokitasuna handia da (198 ha. egoki edo oso egokiak, nahiz eta 4ha. bakarrik enplegatu egun). Lur hauek batik bat herrigunearen inguruan kokatuta egoteak "0km" paradigma inplementatzeko aukera ematen badu ere, artifizializazioaren aurrean oso mendeko bihurtzen du. Larrabetzuren ezaugarrietako bat da azken hamarkadetan izandako artifizializazioaren eragina. Baratze-gintzarako lurak eremu urbanoaren inguruan egonik, hurrengo urtetan joera hori etete premia du eta haztekotan "barrurantz" hazi behar du, lur eremu berriak artifizialdu beharrean.
6. Frutagintzarako lurak ere udalerriko nukleoaren inguruan kokatzen dira. Kasu honetan, ordea, eremu periurbano hori udalerriri osora gehiago zabaltzen da, baina, erabili gabe izateak etorkizunari begira aukera hau zaindu beharra adierazten du.
7. Udalerriko landa lurraren %83,1a egokia edo oso egokia da abeltzaintzarako. Orotara, 1.619 ha. dira abeltzaintzarako egokiak edo oso egokiak, hau da, mila biztanleko 783,3 hektarea. Lur hauek udalerrian hedatzen dira nahiko homogeneoki. 10 hektareatik gorako partzelak dira honelako jarduerak bultzatzeko lur egokiak (%90,4). Gainera, basolarregintza aintzat hartuz gero, are



zabalagoa izan daiteke eremu hori eta etorkizuneko basogintza iraunkorrarentzat indargarri gerta liteke.

8. Elikatzeko ohiturak aldatzen ari diren arren, herritarren kontsumo lehentasunetan elikagai freskoa da nagusi. Gure luraren gaitasuna eta produktuak aintzat hartuz, joera horrekin bat egiteko aukera onak ditu Larrabetzuk.
9. Era berean, herritarrek gehien kontsumitzen dituzten elikagaien proportzio handi bat bertan ekoizteko aukera altua da.
10. Halaber, biztanleria egonkor mantenduko denez, kontsumo joerak eta ekoizpena bateratzeko prozesua planifikatzeko aukerak egokiak dira (motibazioa, portaera, ekoizpena, merkaturatzea...).
11. Larrabetzuk egungo herritar guztiak barazkiz hornitzeko nahikoak lirateke 15,4 hektarea. Hau da, barazkigintzarako egokiak diren lurren %7,8a horretara bideratuz Larrabetzuko egoiliarren barazki beharra asetu daiteke. Frutagintzarako egokiak diren lurren %4,5a nahikoa litzake Larrabetzuarren fruta beharra asetzeko. Abeltzaintzarako, berriz, %3,3a.
12. Egun barazkigintzara bideratutako lurrek soilik 794 bat herritarren urteko barazki beharra asetzeko ahalmena dute. Beraz, luraren desaprobetxamendua handia da: barazkigintzarako egokiak edo oso egokiak diren lurrek urtean 26.150 pertsonen elikadura beharra asetzeko ahalmena dute. Hau da, herritar egoiliarren autohornikuntza bermatzeaz gain, Larrabetzuko lurrek beste 24.115 pertsona elikatzeko potentzialtasuna izango lukete. Larrabetzuk %1.160 aldiz handitzen du bere auto hornikuntzarako gaitasuna.
13. Larrabetzuko elikagaien eskaria asetzeko produkzio guztia bertan kokatuko balitz, baratzegintzan baldintza egokiko 34 bat lanpostu sortuko lirateke, frutagintzan 10 eta abeltzaintzan 6. Egokiak diren lur guztiak lehen sektorerara bideratuko balira, 690 lanpostu sortzeko aukera legoke. Baratzegintzan bakarrik 400 lanpostutik gora sortzea posible litzake.
14. Larrabetzuren ezaugarriek aukera indartsuak eskaintzen dituzte elikagaiak ekoizteko eta bere inguruko hiriak hornitzeko. Bide horrek Larrabetzuri espezializazio aukera interesgarriak eskaintzen dizkio, bai enplegu berriak sortzeko, bai aberastasuna sortzeko, are gehiago iraunkortasunarekin konprometitutako euskal gizartean.

Gauzak horrela, esan daiteke, **hirigintza planeamenduaren erronketariko bat badela udalerriko lurrik elikagaien ekoizpenerako izan daitezen behar diren identifikazio, katalogazio eta babes neurriak ezartzea**. Baina xede hori hartzeak, era berean beste erronka batzuk dakartza, hala nola, aztertzea nola babestu funtzionaltasun handieneko partzelak, batez ere udalerritik hurbilen daudenak, bai eta jarduera desberdinetarako egokienak direnak (malda apalak dituztelako, iturria eskura dutelako, irisgarriak direlako...).

Edonola ere, esan beharrekoa da, gauzak dauden moduan egonda eta azken bi hamarkadetako bilakaera ikusirik, **baratzegintza eta frutagintzarako duen lur ondarea zaindu ahal izateko artifizializazio berririk ez eragitea izan behar dela lehen helburua Larrabetzarentzat**. Irizpide hauek planeamenduak bere eginez gero, etorkizunean bertan elikagaiak ekoizteko eta kontsumitzeko plan estrategikoarekin bat etortzeko oinarriak jarrita leudeke.




Elikagaien eskaria

Atal honetan elikagai kontsumoari dagozkion dimentsio nagusiak ezagutuko dituzu udalerrri mailan: kontsumituriko elikagaien bolumena, gehien eta gutxien kontsumituriko elikagaiak, hauen zenbatekoa eta aurreikusi daitekeen biztanleria bolumena hemendik eta 2030 urtera.


4.1. HERRITAR EGOILIARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO BEHARRA

BIZTANLERIAREN BILAKAERA.
LARRABETZU, 1986/2017.



Iturria: EUSTAT eta INE.

BIZTANLERIAREN ADIN EGITURA. LARRABETZU, 2017.




Iturria: EUSTAT eta INE.





BIZTANLERIAREN PROSPEKTIBA. LARRABETZU, 2018/2030.



Iturria: GAINDEGIA.

Egun 2.035 biztanle

ditu Larrabetzuk (2017). Udalerriak hazkunde demografiko bizkorra bizi izan zuen 2006/09 epealdian, eta ordutik, biztanle kopurua egonkor mantendu egin da.

2030 urtea ortzimugan, datozen urteotan ez da aurreikusten biztanleria bolumenean aldaketa esanguratsurik.

Larrabetzuko indar endogenoei erreparatuz, hemendik eta 2030 urte bitartean baliteke biztanleria galera txiki bat gertatzea. Biztanleria galera egotekotan ere, ez da espero galera esanguratsurik.

2011az geroztiko migrazio patroiak bere horretan mantenduz gero, ordea, 2030 urtean Larrabetzuk egungo biztanle kopuru bertsua izan dezake. 2025 urtearen bueltan inoizko biztanle kopuru handiena izan dezake, eta ostean, biztanle kopuru galera txiki bat etor daiteke.


Modu batean ala bestean, aurreikustekoa da etorkizunean udalerriko biztanle bolumena egungoaren antzekoa izatea.

Larrabetzuko biztanleriaren adin egiturak Bizkaiko zahartze ezaugarri zenbaitzuk izan arren, ez da adinekoen bolumen handiagatik ezaugarritzen. Ordea, 14 urtetik beherakoen proportzioa handia da (%18,7).




4.2. HERRITAR EGOILARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO BOLUMENA

ELIKAGAIEN KONTSUMO OROKORRA (kg urtean/per capita).
EUSKAL A.E, 2017.




Iturria: Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

ELIKAGAIEN KONTSUMO OROKORRA (kg/urtean).
LARRABETZU, 2017.



Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.



Euskal A.E.ko herritar batek, batez bestez, urtean 109 kg fruta fresko, 74 kg esne eta esnekietan, 58 kg barazki freskoetan eta beste 48 kg haragi kontsumitzen ditu.

Ogiak eta pastak (41 kg), arrainak (28,5 kg), patatek (28,5 kg), zerealak, gailetak eta opildegiak (14,8 kg), eraldatutako barazki eta frutak (14,1 kg), olioak (12,6 kg) edo plater prestatuek (11 kg) ere presentzia nabarmena dute herritarren elikadura ohituretan. Elikadura ohiturak eraldatzen ari dira nabarmen, baina produktu freskoen nagusitasuna agerikoa da herritarren elikaduran.

Euskal A.E.ko *per capita*-ko kontsumoa udalerrri mailara ekarrita, Larrabetzun orotara urtean fruta freskoan 221.225 kg, esne eta esnekietan 150.550 kg, barazki freskoetan 117.560 kg eta 96.950 kg haragi kontsumitzen dira.



ELIKAGAIEN KONTSUMO BOLUMENA (kg). LARRABETZU eta BERE TESTUINGURUA, 2017.

	Kontsumo per capita (kg.)	Kontsumoa orotara (mila kg.)		
		LARRABETZU	Bilbo Handia	Bizkaia
OROTARA	464,1	827,76	351.344	467.208
Fruta freskoa	108,7	221,22	93.900	124.865
Esnea eta esnekiak	74,0	150,55	63.901	84.974
Barazki freskoak	57,8	117,56	49.900	66.355
Haragia	47,6	96,95	41.150	54.720
Ogia eta pasta	41,0	83,37	35.388	47.058
Arraina	28,9	58,73	24.928	33.149
Patata	28,5	58,02	24.626	32.747
Zerealak, gailetak, opildegiak	14,8	30,04	12.749	16.953
Eraldatutako barazki eta frutak	14,1	28,69	12.179	16.195
Olioak	12,6	25,60	10.866	14.449
Plater prestatuak	11,0	22,32	9.475	12.600
Arrautzak	9,6	19,45	8.258	10.981
Txokolatea eta ordezekoak	4,3	8,77	3.723	4.951
Eltzekariak	3,4	6,98	2.963	3.940
Arroza	3,0	6,00	2.548	3.388
Fruitu lehorrak	2,7	5,56	2.358	3.136
Olibak	2,3	4,64	1.969	2.619

Oharrak: estimazioa. Per capita kontsumoak Euskal A.E.ko 2016ko uztaitetik 2017ko ekainera bitarteko epea aintzat hartzen du (datu gaurkotuena).

Iturria: Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa., EUSTAT eta INE. GAINDEGIA.

BARATZEGINTZAKO KONTSUMOA (kg/urtean). LARRABETZU, 2017.




Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.

Frutagintzari dagokionez, nabarmena da kanpo produktuekiko menpekotasuna, izan ere hainbat fruta ez dira ohikoak euskal landa eremuan. Halere, badira euskal lurraldean ekoizten diren kontsumo handiko frutak, sagarrak, madariak edota kiwiak, besteak beste.

Laranjak, sagarrak, bananak, meloiak, mandarinak, sandiak, melokotoiak edota kiwien eskaria oso altua da egungo elikadura ohituretan.

ABELTZAINZAKO KONTSUMOA (kg/urtean). LARRABETZU, 2017.



Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.




Tomate fresko eta prozesatua, frutak kontserban, tipula, piper, IV gamako barazkiak, letxuga eta antzekoak, kalabazina edo azenarioen eskaria oso nabarmena da egungo elikadura ohituretan.

Baratzegintzari dagokionez, eta Euskal A.E.ko herritarren kontsumo ohiturei jarraituz, Larrabetzun orotara 24.786 kg tomate fresko, 23.443 kg fruta kontserban, 15.140 kg tipula edota 11.783 kg piper kontsumitzen dira.

Tomate prozesatua (11.050 kg), IV gamako barazkiak (garbituta eta ontziratua kontsumorako prest), letxuga-eskarola-endibiak (8.974 kg), kalabazinak (8.079 kg) edota azenarioen (8.079 kg) eskaria handia da ere.

FRUTAGINTZAKO KONTSUMOA (kg/urtean). LARRABETZU, 2017.



Oilaskoa da haragien artean jaun eta jabe. Urrun da txerri-haragia, eta are gehiago, beste haragi moten kontsumoa. Esnearen kontsumoan ohiturak aldatzen ari dira, halere, Larrabetzun 144.241 bat litro kontsumitzen dira urtean.


Abeltzaintzari dagokionez, azpimarratzekoa da esnea, esnekien eta arrautzen kontsumo bolumena, elikadura ohituretan oso arruntak diren produktuak direlako.

Euskal A.E.ko herritarren biztanleko kontsumo Larrabetzun aplikatuz, urtean 26.414 kg oilasko, 17.745 kg txerri-haragi, 9.707 kg labeldun haragi eta 9.687 kg txahal urrixa kontsumitzen dira. Indioilarrak (4.416 kg) eta arkumeak (3.114 kg) presentzia apalagoa dute, momentuz, herritarren elikadura ohituretan.

4.3. HERRITAR EGOILARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO GASTUA

ELIKAGAIEN KONTSUMO GASTU OROKORRA (€ urtean/per capita).


EUSKAL A.E, 2017.



Iturria: Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

ELIKAGAIEN KONTSUMO GASTU OROKORRA (mila €/urtean).

LARRABETZU, 2017.



Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.



Euskal A.E.ko herritar batek, batez bestez, urtean 350€ gastatzen ditu haragia erosten, eta beste 249€, arraina erosten. Kantitatean kontsumo handieneko produktuak ez badira ere, prezioagatik elikadura gastuan nabarmentzen diren produktuak dira.

Haragia eta arraina alde batera, urtean 164€ gastatzen ditu Euskal A.E.ko herritar batek fruta freskoan, 107€ barazki freskoetan edota 60€ esnea eta esnekietan. Eraldatutako barazki eta frutan beste 36€, patatak erosten 25€, arrautzetan 22€, edota eltzekarietan, 7€.

Per capita-ko kontsumo patroik horiek Larrabetzuko errealitatera ekarrita, urtean haragian 713.000€, fruta freskoan 334.000€, barazki freskoetan 218.000€ eta esnea eta esnekietan 121.000€ gastatzen dituzte larrabetzuarrek. Lau produktu mota hauetan bakarrik, urtean 1.386.000€.




Larrabetzuko herritarrek urtean haragia erosten 713.000€, fruta freskoan 334.000€, barazki freskoetan 218.000€ edota esnea eta esnekietan 121.000€ gastatzen dute, besteak beste.

ELIKAGAIEN GASTU BOLUMEN OROKORRA (€). LARRABETZU eta BERE TESTUINGURUA, 2017.

	Gastua per capita (€)	Gastua orotara (mila €)		
		LARRABETZU	Bilbo Handia	Bizkaia
OROTARA	1.239,0	2.521	1.070.211	1.423.137
Fruta freskoa	350,4	713	302.619	402.415
Esnea eta esnekiak	248,8	506	214.913	285.785
Haragia	164,0	334	141.692	188.418
Barazki freskoak	107,3	218	92.664	123.223
Ogia eta pasta	103,2	210	89.114	118.502
Arraina	65,5	133	56.542	75.188
Patata	59,6	121	51.506	68.491
Zerealak, gailetak, opildegia	49,5	101	42.774	56.879
Eraldatutako barazki eta frutak	41,3	84	35.639	47.392
Olio	36,0	73	31.061	41.304
Plater prestatuak	31,7	65	27.407	36.445
Arrautzak	25,1	51	21.680	28.830
Txokolatea eta ordezkoak	21,8	44	18.813	25.017
Eltzekariak	20,8	42	17.975	23.903
Arroza	7,2	15	6.176	8.213
Fruitu lehorrak	6,2	13	5.373	7.144
Olibak	5,0	10	4.319	5.743

Oharrak: estimazioa. Per capitako gastuak Euskal A.E.ko 2016ko uztailetik 2017ko ekainera bitarteko epea aintzat hartzen du (datu gaurkotuena). Iturria: Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, EUSTAT eta INE. GAINDEGIA.


BARATZEGINTZAKO KONTSUMO GASTUA (€/urtean). LARRABETZU, 2017.



Frutagintza gastuaren ikuspuntutik kanpo produktuekiko menpekotasuna agerikoa da zenbait fruta moten gastu bolumenagatik (laranjak, bananak, mandarinak, meloiak, melokotoiak, sandiak, ananak...). Baina sagarretan, kiwietan, madarietan, marrubietan, gerezietan edota limoietan ere gastua garrantzitsua da.

Kanpo produkzioiko zenbait frutek bereganatzen dute elikadura gastuaren proportzio garrantzitsu bat. Halere, sagarrek, kiwiek edo madariak gastu zati handia bat hartzen dute.

ABELTZAINTZAKO KONTSUMO GASTUA (€/urtean). LARRABETZU, 2017.






Tomateek, IV gamako barazkiek, letxuga eta antzekoek, piperrek, tipulek, tomate prozesatua edota lekek barazkigintzako elikadura gastuaren bolumen garrantzitsua barnebiltzen dute.

Baratzegintzari dagokionez, Euskal A.E.ko kontsumo patroiei jarraituz, Larrabetzuko herritarrek tomate freskoan 43.468€, IV gamako barazkietan 24.562€, letxuga, eskarola edota endibietan 22.650€ eta beste horrenbeste piperretan gastatzen dute urtean orotara elikaduran.

Tipula, tomate prozesatua, lekek, zainzuri prozesatuak, txanpiñoi eta beste perretxikoak, frutak kontserban edota kalabazinak presentzia nabarmena dute ere herritarren elikadura gastuan.

FRUTAGINTZAKO KONTSUMO GASTUA (€/urtean). LARRABETZU, 2017.



Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.

Oilasko haragian, labeldun haragian, txerri haragian eta txahal urrixan, orotara, ia 435.000€ gastatzen dute larrabetzuarrek urtean. Gastua esanguratsua da arkumea eta indioilar haragian, hala nola esnean eta arrautzetan.

Abeltzaintzaren esparruan, larrabetzuarrek Euskal A.E.ko elikadura patroien arabera, oilasko haragia erosten urtean 115.812€ gastatzen dute. Horretaz gain, labeldun haragian beste 111.030€, txerri haragian 108.791€ eta txahal urrixan 99.186€ gastatzen dute.

Bestalde, esnea eskuratzeko gastuaren zenbatekoa 105.087€koa da, esnekietan 6.146€koa eta arrautzetan 44.322€koa, Euskal A.E.ko elikadura patroien arabera udalerrri mailan estimatutako bolumenen arabera.






Lehen sektorearen diagnostikoa

Atal honetan udalerriko lehen sektoreari dagozkion dimentsio nagusiak ezagutuko dituzu: sektorearen negozio zifra, ehun ekonomikoa, sortzen duen enplegu bolumena, animaliaazienda... ahal izan dugun guztietan informazioa dimentsio konparagarrietan eskaini dugu esandakoari neurria hartu ahal izateko.

5.1. LEHEN SEKTOREAREN NEGOZIO-ZIFRA

NEGOZIO-ZIFRA LEHEN SEKTOREAN (milioi €). LARRABETZU



Iturria: EUSTAT eta GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.

1,8 milioi €


inguruko nezozio-zifra sortzen du urtean Larrabetzuko lehen sektoreak.

Udalerriko balio erantsi osoaren %2,6a lehen sektoreak sortzen du (EUSTAT, 2015). Ez da kopuru txikia bere inguru gertuenarekin alderatuta, izan ere nabarmen apalagoa da Bilbo Handian (%0,1) eta Bizkaian (%0,6). Lehen sektoreak munduko balio erantsi osoaren %3,9a sortzen du, Nazio Batuen Erakundeko azken datuen arabera (2014).

Azken hamarkadetan udalerriko lehen sektoreak garrantzia galdu du ondasun ekonomikoaren sorrerari dagokionez, nahiz eta 2015 urtean, inoizko ondasun ekonomiko bolumen gordin handiena sortu. Mundu mailan joera antzerakoa izan da.



LEHEN SEKTOREAREN BALIO ERANTSIA (BPGaren %). LARRABETZU eta BERE TESTUINGURUA.




Iturria: EUSTAT eta ILO.



5.2. LEHEN SEKTOREKO ENPLEGU SORRERA

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, EHIZA ETA BASOGINTZAKO LANDUNAK. LARRABETZU



NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, EHIZA ETA BASOGINTZAKO LANDUNAK (%). LARRABETZU eta BERE TESTUINGURUA.

	1996	2001	2006	2011
LARRABETZU	2,5	2,6	2,0	1,8
Bilbo Handia	0,3	0,4	0,3	0,4
Bizkaia	1,0	0,9	0,6	0,7
Mundua	40,9	38,5	34,1	29,9

Iturriak: EUSTAT eta International Labour Organization (ILO).

2011 eta 2016 bitartean 7 enplegu berri sortu dira Larrabetzuko lehen sektorean, eta 2014 urtetik, ia 100 kontratu erregistratzen dira urtero.

Larrabetzun 23 enplegu daude nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basogintza jardueretan. Hau da, enpleguaren %2,4a jarduera hauei lotuta dago (2016). Bilbo Handia edo Bizkaian proportzio hori oso txikia da (2011). Munduan, aldiz, enpleguaren %30a lehen sektoreari lotuta dago, arrantza barne.


Larrabetzun gutxi dira nekazal erregimenean aritzen diren landunak, sektorean lan egiten dutenen gehiengoa (%80a) autonomo gisa diharduelako. 2014 urteaz geroztik, udalerriko lehen sektorearen kontratazio bolumenak ageriko goraldia izan du. Nolanahi ere, aldi baterakotasun handiko kontratazioa nagusitzen da sektorean.

NEKAZAL ERREGIMENEN LANGILEAK, KONTRATAZIOA ETA LANGABEZIA ERREGISTRATUA. LARRABETZU eta BERE TESTUINGURUA.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Nekazal erregimenera afiliatutako langileak										
LARRABETZU	-	-	4	4	5	4	3	3	4	4
Bilbo Handia	454	505	521	496	375	279	248	263	268	278
Bizkaia	893	984	1.025	1.006	810	673	642	676	694	721
Kontratazioa lehen sektorean										
LARRABETZU	18	4	3	12	8	6	89	99	82	93
Bilbo Handia	1.018	630	581	642	497	524	637	805	830	653
Bizkaia	2.681	2.108	2.064	1.991	1.921	2.049	2.498	2.948	2.657	2.445
Langabezia erregistratua lehen sektorean										
LARRABETZU	0	1	1	1	3	4	5	5	3	2
Bilbo Handia	300	423	591	982	1.038	1.032	1.073	1.050	1.061	1.005
Bizkaia	484	611	852	1.352	1.445	1.468	1.547	1.510	1.489	1.381

Iturria: Espainiako Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa.


5.3. LEHEN SEKTOREKO EHUN EKONOMIKOA

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA eta
BASOZAINZAKO ESTABLEZIMENDUAK (%)
LARRABETZU

■ Basogintza eta baso ustiaketa

■ Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak

BERE TESTUINGURUA, 2017



Iturria: EUSTAT.

Larrabetzun lehen sektoreko 17 establezimendu daude eta udalerriko ehun ekonomikoaren %10,9a osatzen dute. Proportzio hori dezente apalagoa da Bilbo Handian zein Bizkaian. Abeltzaintza ekoizpena (7 establez.) eta laborantza ez iraunkorra (5 establez.) dira sektorean nabarmentzen diren jarduerak, eta beste maila batean, baita nekazal ustiaketa abelazkuntzako ustiaketarekin konbinatuta (3 establez.) ere. Jarduera garrantzitsua izanik ere, aipatzekoa da abeltzaintzaren bueltan azken bost urtetan establezimenduen erdia galdu dela udalerrian, batzuk jarduera mistoetara igaro eta beste zenbait desagertu egin direlako.

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA eta BASOZAINZAKO ESTABLEZIMENDUAK.
LARRABETZU.

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA eta BASOZAINZA	16	19	15	15	16	17
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak						
OROTARA	16	19	15	15	15	16
<i>Laborantza ez iraunkorrak</i>	3	1	1	2	4	5
<i>Laborantza iraunkorrak</i>	1	2	1	1	1	1
<i>Landareen hedapena</i>	0	0	0	0	0	0
<i>Abeltzaintzako ekoizpena</i>	11	14	9	10	7	7
<i>Nekazal ustiaketa abelazkuntzako ustiaketarekin konbinatuta</i>	1	1	4	2	3	3
<i>Nekazaritzari eta abeltzaintzari laguntzeko eta uzta jaso osteko prestakuntzarako jarduerak</i>	0	1	0	0	0	0
<i>Ehiza, animaliak harrapatzea eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak</i>	0	0	0	0	0	0
Basogintza eta baso ustiaketa						
OROTARA	0	0	0	0	1	1
<i>Basogintza eta basoko beste jarduera batzuk</i>	0	0	0	0	0	0
<i>Eguraren ustiaketa</i>	0	0	0	0	1	1
<i>Basoko produktuen bilketa, egurra salbu</i>	0	0	0	0	0	0
<i>Basogintzari laguntzeko zerbitzuak</i>	0	0	0	0	0	0

Iturria: EUSTAT.




NEKAZARITZA, ABELTZAINZA eta BASOZAINZAKO ESTABLEZIMENDUAK.
LARRABETZU.

> LEGE-NORTASUNAREN ARABERA

Lehen sektoreko establezimenduen gehiengo handi bat pertsona fisikoak dira.


■ Bestelako elkarteak
■ Elkarte mugatua
■ Pertsona fisikoa



> ENPLEGU KOPURUAREN ARABERA

Establezimenduen gehiengoak 0 eta 2 arteko enplegatu ditu. Seguruenik, pertsona bakarrekoak gehientsuenak.

■ 10etik 14ra
■ 6tik 9ra
■ 3tik 5era
■ 0tik 2ra




ZENTSATUTAKO USTIATEGIAK, USTIATZE ETA ERABILERA MOTAREN ARABERA.
LARRABETZU.

	Ustiategi kopurua			Azalera (ha.)		
	1989	1999	2009	1989	1999	2009
OROTARA	186	169	94	1.384	1.323	950
NAEdunak (*)	185	169	92	638	699	625
Ustiatze-motaren arabera						
Lurdunak	185	169	94	1.384	1.323	950
<i>Aziendadunak</i>	140	124	59	1.046	1.024	510
<i>Azienda gabeak</i>	45	45	35	339	299	441
Lurgabeak	1	0	0	0	0	0
Erabilera-motaren arabera						
Lur landuak	161	151	83	82	45	191
Larre iraunkorretarako lurrak	180	166	84	556	655	434
Lur guztiak	185	169	94	1.384	1.323	950
Bestelako lurrak	138	165	80	746	624	325

(*) Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria.
Iturria: EUSTAT eta INE. Nekazal Zentsuak.

ZENTSATUTAKO ANIMALI-AZIENDAREN BILAKAERA. LARRABETZU



Larrabetzuko animalia-azientan ardiek hartzen dute garrantzi berezia, 712 abeltzaintza-unitate baitaude. Ahuntz-aziendak 228 unitate ditu, eta behi-aziendak, 180 unitate.

1989az geroztik behi-aziendaren hiru laurdenak galdu egin dira, 2009 urteko Nekazal Zentsuaren arabera. Animalia-azienda mota gehientsuenek presentzia murriztagoa dute 2009 urtean hamar edo hogei urte lehenago baino.

1999/2009 epealdian animalia azientaren laurden bat (%26) galdu egin da.



ANIMALI-AZIENDA, MOTAREN ARABERA.
LARRABETZU eta BERE TESTUINGURUA, 2009.

	LARRABETZU	Bilbo Handia	Bizkaia
Abeltzaintza-unitateak			
Behi-aziendak	180	6.781	49.288
Ardi-aziendak	712	8.035	64.990
Ahuntz-aziendak	228	2.069	12.238
Txerri-azienda	7	140	2.487
Zaldi-azienda	75	1.684	7.453
Hegaztiak, ostrukak izan ezik (mila buru)	123	169	776
Ostrukak	0	0	18
Untxi amak	55	1.623	14.574
Erlauntzak	4	193	1.339
Abeltzaintza-unitateak/mila biztanleko			
Behi-aziendak	96,1	7,7	42,7
Ardi-aziendak	379,9	9,2	56,4
Ahuntz-aziendak	121,7	2,4	10,6
Txerri-azienda	3,7	0,2	2,2
Zaldi-azienda	40,0	1,9	6,5
Hegaztiak, ostrukak izan ezik (mila buru)	65,6	0,2	0,7
Ostrukak	0,0	0,0	0,0
Untxi amak	29,3	1,9	12,6
Erlauntzak	2,1	0,2	1,2

Iturria: EUSTAT eta INE. Nekazal Zentsua.

Bilbo Handiko hegazti-aziendaren %73a, ahuntz-aziendaren %11a eta ardi-aziendaren %9a Larrabetzun kokatzen da, 2009 urteko datuen arabera.

Biztanleriarekiko proportzioan aztertuta, Larrabetzun garrantzitsua da ardi-aziendaren presentzia (380 unitate/mila biztanleko), hala nola, ahuntz-azienda (122), behi-azienda (96) eta hegaztien bolumena (65.600). Azienda hauen presentzia, aldiz, oso urria da Bilbo Handian, eta handiagoa, Bizkaian.



6




The background of the page is a soft, out-of-focus grey. Several dandelion seeds with their feathery parachutes are captured in mid-air, appearing to drift downwards. The seeds are positioned at various heights and locations, creating a sense of movement and lightness. The overall mood is calm and serene.

Lurraren diagnostikoa

Atal honetan egun udalerriko landa lurrari ematen zaion erabileraren dimentsio nagusiak ezagutuko dituzu. Horrela, jakingo duzu zenbateko lur azalera erabiltzen den, zer ekoizten den, non ekoizten den. Atal hau ezinbestean ondorengoarekin lotuta dator, zeinak azaltzen duen gaur egun baliatzen dena baino arras handiagoa dela autohornikuntza.

6.1. LURRAREN EGITURA OROKORRA ETA ORGANIKOA

HIRI LURZORUAREN BILAKAERA (%). LARRABETZU eta BERE TESTUINGURUA.




Iturria: EUSTAT eta EUSKO JAURLARITZA.

Larrabetzuko azaleraren %1,2a hiri lurzorua da, eta beste %5,8a, lurzoru urbanizagarria, Udalplaneko datuen arabera (2017). Bizkaiarekin alderatuta, eta zer esanik ez Bilbo Handiarekin, Larrabetzun lurzoruaren gaineko hiri aztarna murrizta da, eta zentzu horretan, badu bere inguruak ez duen ondasun bat.

Larrabetzuko azaleraren %1,2a hiri lurzorua da. Bizkaiaren proportzio hori %5koa da, eta Bilbo Handian, %16,9koa.

URBANIZATUTAKO LURRA, FUNTZIOAREN ARABERA. LARRABETZU, 2017.

BANAKETA (%)



135,2 ha
urbanizatuta daude

Larrabetzun urbanizaturiko azaleraren %33,1a egoitzarako lurzorua da, eta sistema orokorrerako azalera udalerrian urbanizatutako azaleraren %27,4a hartzen du. Bestaldetik, industria jardueretara bideraturiko lurrek urbanizatutako azaleraren %19,4a metatzen dute. Ekipamenduetara bideratutako lurrek, aldiz, urbanizaturiko lurzoruaren %18,5a. Industria eta ekipamenduetarako lurzorua, gehienbat N-637 errepidetik gertu kokatzen da.

Iturria: EUSTAT eta EUSKO JAURLARITZA.



LURRAREN EGITURA OROKORRA ETA ORGANIKOA ETA KALIFIKAZIOA.
LARRABETZU eta BERE TESTUINGURUA, 2017.

	LARRABETZU	Bilbo Handia	Bizkaia
Hektarea			
Egoitzarako lurzorua	21,4	4.370	8.140
Jarduera ekonomikoetarako lurzorua	22,5	3.088	4.993
Sistema orokorretako lurzorua(1)(2)	64,2	5.993	10.574
Lurzoru urbanizaezina	2.041,1	24.099	197.769
OROTARA AZALERA	2.153,0	37.558	221.484
%			
Egoitzarako lurzorua	1,0	11,6	3,7
Jarduera ekonomikoetarako lurzorua	1,0	8,2	2,3
Sistema orokorretako lurzorua(1)(2)	3,0	16,0	4,8
Lurzoru urbanizaezina	94,8	64,2	89,3
OROTARA AZALERA	100	100	100

(1) 2012an zenbatu ziren lehenengo aldiz "ibai bideak" sistema orokorreko lurzoru gisa.


(2) 2014an islatu zen lehenengo aldiz "AHT" sistema orokorreko lurzoru gisa.

Iturria: EUSKO JAURLARITZA.

Larrabetzuk badu Bilbo Handiak berreskuratu ezin duen ondasun bat: lurzoru urbanizaezin garrantzitsu bat.


Larrabetzuk 2.053 hektareako azalera dauka. Horietatik, 2.041,1 hektarea urbanizaezinak dira. Beste era batera esanda, udalerriko azaleraren %94,8a urbanizaezina da. Proportzio hori Bilbo Handian soilik %64,2koa da, eta Bizkaian, %89,3koa.

KOKAPENA



URBANIZATUTAKO LURRAREN BILAKAERA (ha). LARRABETZU, 1997-2017.

FUNTZIOAREN ARABERA



Iturria: EUSTAT eta EUSKO JAURLARITZA.

Azken bi hamarkadetan urbanizaturiko azalera ekipamendu eta industria jardueretara bideratua izan da, nagusiki.

Azken hogeitau urteotan Larrabetzun urbanizaturiko lurzoru ekipamenduetara bideratu da, eta maila handi batean ere, industria jardueretara. Eskumaldeko irudian ageri bezala, hektarea horiek nagusiki herrigunean eta N-637 errepidearen inguruetan kokatzen dira.

Urbanizaturiko lurzoru hori nagusiki N-637 errepide inguruan kokatzen da.





KOKAPENA


■ 1997
■ 2017



6.2. LURRAREN EGITURA ETA LANDA LURRAREN ERABILERA

LURRAREN SAILKAPENA ERABILERAREN ARABERA (%). LARRABETZU, 2017.


BANAKETA (%)



Larrabetzuko lurzoruen %61,9a basoa da, eta beste %24,8a, larrea.


Balio natural handiko azalera dauka udalerriak.

LURRAREN ERABILERA BIZTANLEKO (ha/1.000 bizt.). LARRABETZU, 2017.






KOKAPENA



Mila biztanleko laborantzara dedikaturiko 27,8 ha eta frutagintzara dedikaturiko 20 ha daude. Larre azalera, oster, 259,8 ha/mila biztanleko.

Basoen nagusitasuna alde batera, larreek udalerriko lurzoruaen laurden bat (%24,8) osatzen dute. Era berean, laborantzara bideraturiko lurrek lurzoruaen %2,7a hartzen dute, eta azaleraen beste %1,9a, frutagintzara bideratuko lurrek metatzen dute.


Laburrean, udalerrian mila biztanleko 27,8 ha dira laborantzara bideraturiko lurak, eta frutagintzara bideratutakoak, 20 ha/mila biztanleko. 259,8 ha/mila biztanleko larre azalera ere bada herrian.



6.3. BASOAREN EGITURA

BASOEN SAILKAPENA MOTAREN ARABERA (%). LARRABETZU, 2017.

BANAKETA (%)




Larrabetzun

1.378,6 hektarea

baso daude, horietatik, %83a landatutakoak dira. Pinu Radiata nagusi da (661,2 ha).



* Jatorrian, Euskal Herriko zuhaitz gehienak landatuak izan dira. Ez dago gizakiak esku hartu ez duen baso naturalik. Hala ere, bereizi egiten da landaketa eta baso artean. Lehenengoa, landaketa marko konkretu baten baitan egoten da, adin eta tamaina bereko espezie bakarrekin. Bigarrenak, itxura naturalagoa du, denboraren joanaz eremu heterogeneoa bihurtzen da: bertako zuhaitz, sasi eta, oro har, masaren bergenerazio naturala ematen da.

BASO AZALERA BIZTANLEKO (ha/1.000 bizt.). LARRABETZU, 2017






KOKAPENA



6.4. LANDA LURRAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

6.4.1. ERREPIDEEN GERTUTASUNA


PARTZELEN SAILKAPENA ERREPIDEAREKIKO DISTANTZIAREN ARABERA (%). LARRABETZU, 2017.



Landa lurreko partzelen %68,1ak gehienez 100 metroko distantziara errepide bat du. Beste %29,1a errepide batetik 100 eta 300 metro arteko distantziara kokatzen da. Irisgarritasun egokia hedatua dago, beraz.

6.4.2. ITURBURUEN GERTUTASUNA

PARTZELEN SAILKAPENA ITURBURUEKIKO DISTANTZIAREN ARABERA (%). LARRABETZU, 2017.




Partzelen %11,2ak gehienez 100 metroko distantziara iturburu bat dute, eta beste %44,8 batek 100 eta 300 metro arteko distantzian. Iturburu batetik 600 metrotara edo urrunago kokatzen da landa lurreko partzelen beste %10,2a.



Errepideak

- Autopistak, autobiak edo galtzada bikoitza
- Errepide nagusiak
- Beste errepide batzuk
- Bideak



Unibertsoa: 1.711 partzela.

Iturburuak


- Iturburuen kokapena
- 100m-ko bufferra
- 300m-ko bufferra
- 600m-ko bufferra



Unibertsoa: 1.711 partzela.

6.4.3. LURRAREN ORIENTAZIOA


LANDA LURRAREN SAILKAPENA ORIENTAZIOAREN ARABERA (%).
LARRABETZU, 2017.



Larrabetzuko landa lurren %19,8ak hegoalderako orientazioa du, eta beste %39,9a, hego ekialde edo mendebaldeko orientazioa du. Gutxi dira iparraldera orientaturiko lurrak, hortaz, ereintzako landa lurren orientazioa aproposa da

6.4.4. LURRAREN MALDA

LANDA LURRAREN SAILKAPENA MALDAREN ARABERA (%).
LARRABETZU, 2017.



Landa lurren %10,7ak gehienez %8ko malda du. Beste %13,3ak 8 eta 12 arteko malda dauka (%).

Landa lurren ia bi herenen malda %12-20 bitartekoa da.




Lurraren orientazioa



Unibertsoa: 1.961,5 ha.

Malda (%)

- ≤5,0
- 10,0
- 15,0
- 20,0
- 25,0
- >30,0



Unibertsoa: 1.171 partzela.



7




Elikagaien ekoizpenerako lurraren diagnostikoa

Atal honetan udalerriko landa lurak duen gaitasun agrologikoa ezagutuko duzu. Xede horrekin landa lur osoa katalogatu eta partzela bakoitzari jarduera desberdinetarako duen egokitasuna aztertu dugu. Horrela, baratzegintzarako, frutagintzarako eta abeltzaintzarako egokienak diren lurak katalogatu ditugu. Era berean, baso eta abeltzaintza uztartzen dituen eredu misto baterako (basolarregintza) lur egokiak identifikatu ditugu. Lurraren orientazioa, malda, ur iturburuen gertutasuna nahiz errepidetara distantzia aintzat hartu dira.

7.1. BARATZEGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA

BARATZEGINTZARAKO LURREN SAILKAPENA EGOKITASUNAREN ARABERA (%). LARRABETZU, 2017.





Larrabetzuko landa lurraren %10,4a egokia edo oso egokia da baratze gintzarako. Lurzoruaren beste %40,8a ez da bereziki egokia ez desegokia. Beraz, 197,6 dira baratze gintzarako egokiak edo oso egokiak diren hektareak, hau da, mila biztanleko 100,2 hektarea.

Baratze gintzarako egokiak edo oso egokiak diren 198 hektarea daude.


Eskumaldeko irudian ageri bezala, lurzoru hau nagusiki herrigunearen inguruan kokatzen da, Berrezoaga, Basara eta Goikola auzoetan, nabarmen. Tamaina txikia edo ertaina (gehienez 10 ha-koak) duten partzelak dira baratze gintzarako egokiak.

BARATZEGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA BIZTANLEKO (ha/1.000 bizt.). LARRABETZU, 2017.






BARATZEGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA TAMAINAREN ARABERA (%).
LARRABETZU, 2017.



7.2. FRUTAGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA

FRUTAGINTZARAKO LURREN SAILKAPENA EGOKITASUNAREN ARABERA (%). LARRABETZU, 2017.






Frutagintzarako egokiak edo oso egokiak diren 386 hektarea daude.

Udalerriko landa lurraren %20,1a egokia edo oso egokia da frutagintzarako. Lurzoruaren beste %49,1a ez da bereziki egokia ez desegokia. Orotara, 386 dira frutagintzarako egokiak edo oso egokiak diren hektareak, hau da, mila biztanleko 193,1 hektarea.


Irudiak erakutsi bezala, lurzoru hau nagusiki herrigunearen inguruan kokatzen da, baina udalerrian barrena baratze-gintzarako egokiak diren lurrak baino sakabanatuago daude. Tamainan anitzak dira frutagintzarako egokiak diren partzelak.

FRUTAGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA BIZTANLEKO (ha/1.000 bizt.). LARRABETZU, 2017.






FRUTAGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA TAMAINAREN ARABERA (%).
LARRABETZU, 2017.



7.3. ABELTZAINZARAKO LURREN EGOKITASUNA

ABELTZAINZARAKO LURREN SAILKAPENA EGOKITASUNAREN ARABERA (%). LARRABETZU, 2017.





Abeltzaintzarako egokiak edo egokiak diren 1.619 hektarea daude.

Udalerriko landa lurraren %93,1a egokia edo oso egokia da abeltzaintzarako. Lurzoruaren beste %15,3a ez da bereziki egokia ez desegokia. Orotara, 1.619 dira abeltzaintzarako egokiak edo oso egokiak diren hektareak, hau da, mila biztanleko 798,3 hektarea.


Irudian ageri bezala, abeltzaintzarako egokia den lurzoria udalerrian barrena hedatzen da. Eremu zabala da honakoa, udalerraren iparraldean, eta apalago ekialdean, diren baso eremuak salbuetsiz. 10 hektareatik gorako tamaina duten partzelak dira abeltzaintzarako egokienak dituzten lurak.

ABELTZAINZARAKO LURREN EGOKITASUNA BIZTANLEKO (ha/1.000 bizt.). LARRABETZU, 2017.






ABELTZAINZARAKO LURREN EGOKITASUNA TAMAINAREN ARABERA (%).
LARRABETZU, 2017.



Unibertsoa: 1.953,6 ha

7.4. BASOLARREGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA

BASOEN EGITURA MOTAREN ARABERA (%).
LARRABETZU, 2016.




- Basolarregintzarako egokiak
- Basolarregintzarako ez egokiak

1.136 hektarea
halako eredu misto batera
bideratzeko egokiak dira.

Etorkizuneko landaketa berriak basolarregintza ereduia sustatzeko eremu egokiak dira. Ildo horretan, baso landaketarako eremuaren %76,9a egokia edo oso egokia da abeltzaintza jardueretarako ere. Hortaz, Larrabetzuko azalera osoaren %42,6a egokia da basolarregintzako eredu mistoa sustatzeko.










Hornikuntzarako gaitasuna eta lurraren potentzialitatea

Elikagaiak ekoizteko dauden espazioak ezaguturik, zein da baina lur hauek duten gaitasuna? Zenbat elikagai ekoitz daiteke bertan? Eta horiekin zenbat pertsona elika daitezke? Atal honetan herriko lurrek duten hornikuntza gaitasuna neurtzen da, zein den herritarrak elikatzeko lur beharra eta orotara zenbat pertsona elikatu ahalko ziren.

8.1. HERRITARREN ELIKADURARAKO LURRAREN ERABILERA ETA BALIZKO AHALMENA


LUR ERABILERA ETA ERABILI GABEKO LUR EGOKIA (%).
LARRABETZU, 2017.



Baratzegintzarako egokia den luraren %98,2a ez da horretara bideratzen. Frutagintzaren kasuan, kopuru hori %95,6koa da, eta abeltzaintzan, lur egokiaren %69,1a ez da horretara bideratzen.

424,3 m²/biztanleko
lur behar dira urte osoko elikadura asetzeko.

ELIKADURARAKO LUR BEHARRA BIZTANLEKO (m²). BIZKAIA



Oharrak:

Eredu ekologiko edo jasangarri batean, Bizkaiko klimaren menpeko luraren errendimendua eta karga estimatu da.

Ez dira aintzat hartu honako eskariak asetzeko lur beharra: zerealak, eltzekari lehorrak, Bizkaian kontsumitu baina ekoiztu ezinezko frutak, esnekiak, urdaiazpikoa eta txerrikiak, hala nola animaliak elikatzeko pentsu eta bestelakoen lur beharra.



LUR ERABILERA ETA LUR EGOKIAREN APROBETXAMENDUA (ha). LARRABETZU, 2017.

	Baratzegintza	Frutagintza	Abeltzaintza	OROTARA (*)
Egun erabilitako lurak	6	41	529	576
LUR EGOKIA				
Erabilitakoa	4	17	500	521
Erabili gabekoa	194	369	1.119	1.106
OROTARA	198	386	1.619	1.627


(*) Jarduera anitzetarako egokiak diren lurren kasuan, lehenetsi da baratzegintza eta frutagintza, hurrenez hurren.

Iturria: EHNE eta GAINDEGIA.


Autohornikuntza bermatzeaz gain, lurrek
beste 21.540 biztanle
elikatzeko gaitasuna dute.

Lur egokiaren aprobetxamendua mugaraino eramanda, Larrabetzun sortutako barazkietatik 26.150 biztanle elikatu litezke urte osoan. Frutagintzan 23.600 biztanleen beharrak asetu litezke (**), eta abeltzaintzan, 46.600 biztanleen elikagai eskaria .

AUTOHORNIKUNTZA GAITASUNA. LARRABETZU



HERRITARRAK ELIKATZEKO LURRAREN GAITASUNA (bizt. kop.). LARRABETZU, 2017.




(*) Jarduera anitzetarako egokiak diren lurren kasuan, lehenetsi da baratzegintza eta frutagintza, hurrenez hurren.

(**) Soilik Bizkaiko kliman ekoizgarriak izan daitezkeen motak aintzat hartu dira (kontsumituriko fruta bolumen osoaren %48,1a).

8.2. ELIKAGAIEN AUTOHORNIKUNTZA BEHARRA ETA AUKERA

BARAZKIGINTZAN AUTOHORNIKUNTZARAKO LUR BEHARRA (ha). LARRABETZU.



Oharrak:


Barazkien ziklo estazonalak eskaintzen duen kontsumoa aukera aintzat hartu da.

Eredu ekologiko batean, Bizkaiko klimaren menpeko luraren errendimendua eta errotazioa zehazteko 30 bat baserritarren iritzia aintzat hartu da.

Eltzekari lehorrak ez daude barnebilduta.



FRUTAGINTZAN AUTOHORNIKUNTZARAKO LUR BEHARRA (ha). LARRABETZU.



Oharrak:

Eredu ekologiko edo jasangarri batean, Bizkaiko klimaren menpeko luraren errendimendua estimatu da.

Fruta eskaria zehazteko egun kontsumitzen den fruta bolumena aintzat hartu da. Soilik Bizkaiko kliman ekoizgarriak izan daitezkeen motak aintzat hartu dira (fruta bolumen osoaren %48,1a).

Barazkigintzan

15,4 ha,

frutagintzan

17,2 ha

eta abeltzaintzan

53,7 ha

behar dira udalerriko
autohornikuntza
gauzatzeko.


Udalerrian bizi diren herritarren elikagai kontsumoa asetzeko, Larrabetzun beharrezkoak dira 86,3 hektarea horretara bideratzea.

Barazkigintzara, orotara, 15,4 hektarea bideratu behar dira herritar egoiliarren barazki eskaria asetzeko. Horien artean, nabarmentzekoa da patata (3,87 ha) eta babarrunak (3,34 ha) hartzen duten espazioa.

Fruten autohornikuntza asetzeko beharrezkoak dira 17,2 hektarea. Eredu horren zati garrantzitsu bat sagarretara bideratu beharra dago (3,60 ha). Frutagintzara bideratutako lurren erabilera abeltzaintzako zenbait jarduerekin uztartu daiteke, luraren aprobetxamendua handituz.

Abeltzaintzak 53,7 ha beharko lituzke larrabetzuarren eskaria asetzeko. Autohornikuntzarako urtean, behintzat, 16.500 oilasko buru, 148 txerri buru, 52 abelgorri, 302.700 arrautza eta 144.400 litro behi-esne beharrezkoak dira.

ABELTZAINZAN AUTOHORNIKUNTZARAKO LUR BEHARRA (ha). LARRABETZU.



Oharrak:

Eredu ekologiko edo jasangarri batean, luraren errendimendua araudiaren arabera estimatu da.

Ez da animaliak elikatzeko pentsu eta bestelakoen produkzioak behar duen lur beharra aintzat hartu.

Haragi eskaria zehazteko egun kontsumitzen den haragi bolumena aintzat hartu da. Arrautzen produkzioarako lur beharra eredu ekologiko batean kalkulatu da.

Txerriaren haragi eskarian ez da urdaiazpikoa eta bestelako txerrien eskaria aintzat hartu.

Esne eskarian ez da esnekien eskaria aintzat hartu.

ABELTZAINZAN AUTOHORNIKUNTZARAKO BEHARRA (ha). LARRABETZU.

Arrautzak

Elikatzeko buru kopurua (urte osoan)	1.078
Arrautza bolumena (kop./urtean)	302.727
Teiltupeko gutxienezko eremua (ha)	0,02
Artzaintzarako gutxienezko eremu irekia (ha)	0,43
Iraitzia ipintzeko lur gehigarria (ha)	4,26
OROTARA LUR BEHARRA (ha)	4,71

Okelarako oilaskoak

Elikatzeko buru kopurua (urte osoan)	6.965
Oilasko buruak (kop./urtean)	16.509
Oilasko haragi produkzioa (kg./urtean)	26.414
OROTARA LUR BEHARRA (ha)	12,01

Okelarako txerriak

Elikatzeko buru kopurua (urte osoan)	87
Txerri buruak (kop./urtean)	148
Txerri haragi produkzioa (kg./urtean)	17.745
OROTARA LUR BEHARRA (ha)	6,20

Abeltzariak

Elikatzeko buru kopurua (urte osoan)	54
Abeltzari buruak (kop./urtean)	52
Abeltzari haragi produkzioa (kg./urtean)	15.527
OROTARA LUR BEHARRA (ha)	21,80

Esne behiak

Elikatzeko buru kopurua (urte osoan)	18
Behi-esne produkzioa (litro/urtean)	144.241
OROTARA LUR BEHARRA (ha)	9,02

Urteko produkzioa:

302.700 arrautza



16.500 buru



148 buru



52 buru



144.200 litro


Oharrak: estimazioa, biztanleko kontsumoak eredu ekologiko (arrautzak) edo jasangarri batean udalerrian asetzeko.

Iturria: GAINDEGIA eta EHNE Bizkaia.



8.3. LAN UNITATEAK ELIKAGAIEN AUTOHORNIKUNTZAN

LAN UNITATE KOPURUA (*), BALIZKO ESZENATOKI DESBERDINETAN. LARRABETZU.



(*) Baratzegintza eta frutagintzan zuzeneko salerosketa bidez edo bitarteko kostu txikiekin gordinean 1.500 €/hilean jasotzeko irizpidea aintzat hartu da. Abeltzaintzan, aldiz, eredu ekologiko eta zuzeneko salerosketa batean 2016/04/21an argitaraturiko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 75.* alean zehazturiko koefizienteen arabera kalkulatu da.

Autohornikuntza
egoera batek
behintzat
50 lanpostu
sortuko lituzke,
baldintza
egokietan.

Udalerriko elikagaien eskaria asetzeko produkzio guztia bertan kokatuko balitz, baratzegintzan 34 bat lanpostu, frutagintzan 10 lanpostu eta abeltzaintzan beste 6 lanpostu sortuko lirateke. Kalkulu honek lansari duin bat aintzat hartzen du, eta egungo kontsumoa eta elikagaien prezioaren gainean egina dago. Baliteke, beraz, balizko autohornikuntza egoera batek lanpostu gehiagoren sorrera ahalbidetzea.

Autohornikuntza egoeraz harago, eta azaldutako metodologiaren arabera, udalerriko lur egoki guztiak lehen sektorerara bideratuko balira, 690 bat lanpostu sortzeko aukera legoke, jarduera anitzetarako egokiak diren lurren kasuan baratzegintza eta frutagintza lehenetsiz. Baratzegintzan bakarrik, 400 lanpostutik gora sortzea posible litzateke.

LAN UNITATE KOPURUA, BALIZKO ESZENATOKI DESBERDINETAN. LARRABETZU.

	Autohornikuntza	Soberakina	OROTARA
Baratzegintza	34	406	441
Frutagintza	10	101	111
Abeltzaintza	6	129	135
OROTARA	50	637	687

Iturria: EHNE eta GAINDEGIA.